

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

257/2022 Foru Agindua, Ingurumen eta hirigintzako diputatuarena, urriaren 13koa, Uribarri Gaubeako PD02 eremua xehe antolatzen duen plan bereziari buruzko ingurumen txosten estrategikoa ematen duena

Uribarri Gaubeako PD02 eremua xehe antolatzen duen plan bereziaren izapidea ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren eraginpean dago. Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioarenak, arautzen du prozedura hori.

Prozedura horren esparruan, 2022ko maiatzaren 20an, Gaubeako Udalak ingurumen dokumentu estrategikoa bidali zion Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta hirigintza Sailari, Aztes Ingenieria SL sozietateak egindakoa, Uribarri Gaubeako PD02 eremua (AR 16 h sektorea) xehe antolatzen duen plan bereziari buruzkoa, bat etorrita Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak arautzen duen gutxieneko edukiarekin. Halaber, hirigintza dokumentua bidali zion, ARKE Arquitectos estudioak egindakoa. Horrela, plan horren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura abiatu zen. La Pollina kooperatiba da plan bereziaren sustatzailea.

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, 2022ko maiatzaren 20an dokumentazioa hori jaso ondoren (erregistro telematikoa), hasiera eman zion, 2022ko maiatzaren 26an, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko faseari.

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren txostenak aztergai dituen hirigintza dokumentua (plan berezia) nahiz ingurumen dokumentu estrategikoa irakurgai daude Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren <https://irekia.araba.eus> web atarian, informazio publikoari buruzko atalean, ingurumen ebaluazioaren kategorian, 22/33 espediente zenbakiarekin. Bestalde, Gaubeako udalerriko hiri Antolamenduko plan orokorra (aurerantzean, HAPO) <https://www.valdegovia.eus/eu/udal-zerbitzuak/hirigintza-eta-arkitektura> webean kontsultatu daiteke.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2022ko urriaren 6an eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (22/33 espediente).

1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena:

Gaubeako udalerriko hiri antolamendurako Pan orokorraren barruan (2020ko abuztuaren 11n onetsi zuten behin betiko, eta 2020ko irailaren 16ko ALHAOn 105 zenbakia argitaratu) Uribarri Gaubeako PD02 (AR16 h) lurzatiaren 03 exekuzio unitateko hiri- eta bizitegi-lurzoru finkatugabea xehe antolatzen duen plan bereziak helburu du eremuko eraikigarritasuna murriztea, 0,5 m²/m²-tik (sabiaren metro karratuak) 0,3 m²/m²-ra, errealitate topografikora egokitu dadin eta eremu librean zona bat eta lurzatietaraino iristeko bide bat antola daitezen.

Plangintzak Uribarri Gaubeako bizitegi eremuaren antolamendu bati erantzuten dio, eta landaguneetan etxebizitza eskuratzeko aukera sustatzea nahiz Araba Erdialdeko Lurralde plan partzialean (LPP) aipatutakoarekin bat egitea du xede.

Hasierako onespen fasean dagoen arazko aldaketa bat da; beraz, jarduketak eta urbanizazio obrak geroagoko fase bati dagozkio. Ingurumen ebaluazio estrategikoa (IEE) ebazten denean, plan berezia behin betiko onetsiko da, eta udalak hirigintza proiektua egin eta onetsiko du gero.

Eremuak (1,43 hektarea) nahiko orografia makurra dauka, eta kota jauzi handiak daude iparraldeko mugan (4/5 metro, Elizaren kalea) eta hegoaldeko mugan (2/3 metro, San Roke kalea, La Pollina luzapen bidea): bi mugen artean, puntu batzuetan, 10 metro inguruko kota aldeak daude. Maila horien ondorioz, arau subsidiarioetan proposatzen den antolamenduak lur erauzketa handiak egitea eta eremurako sarbide posibleetan euste hormak jartzea ekarriko du; era berean, lurzatiek makurdura handia izango dute.

Hori dela-eta, hirigintza araudiaren 94. eta 108. irizpideei erreparatuz (paisaiaren babesari eta ingurumen irizpideei buruzkoak dira), lur mugimenduak gutxiagotu nahi dira, lursailaren topografia asko asaldatu duen mugimendurik eta paisaiaren ikuspegi orokorrean inpaktu negatiboak eragingo dituzten elementuak (lur erauzketak eta hormak) sortzea ekarriko duen mugimendurik egin ez dadin.

Plan bereziak eremuaren topografiari egokituko zaion antolamendua proposatzen du. Hamabi lurzati sortuko lirake (500 m²-tik gorako azalera, HAPOaren hirigintza fitxaren arabera), eta eraikin bakoitzak etxebizitza bat edo bi izan ahalko ditu; eraikitzen diren bi familiako bolumenen konfigurazioak antzekoak izan ahalko dira. Eremuaren iparraldean, ibilgailuetarako bide bat eraiki nahi da, antolamenduaren beheko kotan, gaur egungo aparkalekutik abiatuta, kota berean dauden 10 lurzaitara iristeko; bestalde, bide bat eraiki nahi da hegoaldean (gainetik), ekialdeko eremuan dauden bi lurzaitara iristeko. Gaur egungo landare ezpondari eutsiko zaio, eta berritu egingo da, hegoaldeko bidea eta oinezkoentzako bidexka lotuko dituen parke berde bat sortzeko. Proposatutako hirigintza fitxaren antolamendu ildoetan (2. apartatuan) jasotzen denez, parke berdeak bat egingo du beheko bidearekin, oinezkoentzako bidexka baten bidez.

1.2. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa:

Plan bereziaren jardun eremu geografikoak 14.348 m²-ko azalera dauka, eta hiri- eta bizitegi-lurzoru finkatugabea da. Iparraldean, Uribarri Gaubeako herrigunetik ekialdera dago, eta hirialdeak ukitzen ditu (etxebizitzak, aparkalekuak eta abar); halaber, Gaubea udalerraren (Añana) ekialdean dago, zeina nagusiki landa udalerrria baita eta Arabako lurralde historikoaren mendebaldean baitago.

Ekialdeko ertzean, lurzoru urbanizaezin batekin egiten du muga; hegoaldean, berriz, lurzoru urbanizagarriak (SR-10) eta hiri-lurzoru finkatugabeak (AR16-F-PE-R-05) dauzka, eta, iparraldeko eta mendebaldeko mugetan, hiri-lurzoru finkatuak dauzka.

Arabako Foru Aldundiaren katastro digitala kontsultatuta ikusi dugunez, eremuak Gaubeako udalerriko 96., 97., 98., 99., 100. eta 101. hiri-lurzatiak biltzen ditu.




1. irudia. Eremuaren irudi katastrala. Iturria: Arabako Foru Aldundiaren katastroa, 2022

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak emandako agirietan azaltzen denaren arabera, jarraian laburtuta dauden hiru aukera planteatu dira:

– “0” aukera edo aldaketarik nahiz zehaztapenik ez egiteko aukera (ez da hautatu): $0,5 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ko eraikigarritasun fisikoa ezartzea, eremu horri halaxe baitagokio indarreko planteamenduari (2020) erantsitako arau subsidiarioen araudiaren arabera. Ingurumen dokumentu estrategikoan azaltzen denez, eraikigarritasuna murrizten ez bada, lur erauzketa handiak egingo dira, eta euste hormak jarriko, lurzatiatarako beheko eta goiko bideen sarbide posibleetan. Ondorioz, gaur egungo landare ezponda ez da babestuko, makurdura handiko lurzatiak planteatuko dira, lursailaren profil topografikoari kalte egingo zaio, higadura prozesuak larriagotuko dira, lurzorua galduko da, eta landare estaldura galduko da; beraz, besteak beste, landa paisaiaren kalitateari eragingo zaio. Bada, inpaktua kritikoa izango dela baloratzen du dokumentuak, beste lurralde plan batzuei dagokienez (inpaktu latza orografiari eta maldari dagokienez), 2020ko HAPOaren 22. artikuluko irizpideak (baimendutako eraikigarritasunari buruzkoak) eta paisaiaren babesari eta ingurumen irizpideei buruzko 94. eta 108. artikulua betetzen ez direlako. Aukera hori baztertu da.

– “1” aukera (hautatu dena): eremua antolamendu zehatz batera egokitzea, baimendutako eraikigarritasuna $0,5 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -tik $0,3 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ra murriztuz eta eremu libreak aurreikusiz. plan orokorraren hirigintza araudiaren 22. artikulua (baimendutako eraikigarritasunari buruzkoa) eta 2020ko HAPOaren 94. eta 98. artikulua (paisaiaren babesari eta ingurumen irizpideei buruzkoak) betetzen dira, eta geroko exekuzio garapenak bat egingo du 2020ko HAPOan aipatzen diren eraikuntza baldintzekin (hots, paisaia integratzeko eraikuntza baldintzekin). Hortaz, inpaktuaren balorazioa positiboa da, beste lurralde plan batzuei dagokienez, eta positiboa orografiari eta maldei dagokienez, ingurumen dokumentu estrategikoaren arabera. Proposatu den antolamendua bat dator lursailaren topografiarekin eta eremuko maldekin: antolamendu xehea kota jauziei egokitzen zaie, eta eremua diseinatzeko baliatzen ditu kota jauziok. Era berean, eraikigarritasuna murriztea proposatzen du, eta eremu librean tokiko sistema motako lurzati bat aurreikusten (SL-EL), 1.125 m^2 -ko parke berde baten bidez. Parkeak barruan hartuko du La Pollinako iturria, eta hegoaldeko bidearekin lotuko da, 1.030 m^2 -ko oinezkoentzako bidexka berde baten bidez. Bestetik, gaur egungo ezponda lehengoratuko da (2. irudia). Ingurumen dokumentu estrategikoan adierazten denaren arabera, egokitzapen horrek ingurumen ondore onak ekarriko dizkio hidrografiari, nahiz eta intentsitate txikikoak izan, eta higadura prozesuak murriztuko ditu, zerbitzu ekosistemikoei zati batean eustearekin batera. Horretaz gainera, intereseko tokiko ondareari balioa emango dio (La Pollinako iturria), gaur egungo landare ezponda berrituko du, eta parke berdea antolatuko. Arrazoi horiengatik hautatu da.



2. irudia. Hautatutako aukera. Iturria: ingurumen dokumentu estrategikoa. Gaubeako hiri antolamendurako plan orokorraren aldaketa xeheari hasierako onspena emateko dokumentua, Uribarri Gaubeako PD02 eremuari dagokiona

“2” aukera (ez da hautatu): Baimendutako eraikigarritasuna $0,5 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -tik $0,3 \text{ m}^2/\text{m}^2$ -ra murriztea planteatzen du, baina tokiko sistemak lotuko lituzkeen parkea (1.125 m^2) eta oinezkoentzako bidexka (1.030 m^2) eremu librean tokiko sistema gisa (SL-EL) planifikatu gabe. Halaber, bizitegi lurzati bat planifikatzen du, orografikoki makurtuta dagoen eremu baterako. Ezpondetako eta lur erauzketetako lur bolumen handiak sortuko lirateke, eta horrek kalte egingo lioke profil orografikoari, gaur egungo ezponda baten gainean antolatuko litzatekeelako lurzati bat (p8); ondorioz, gainera, landare estaldura kenduko litzateke. Inpaktu moderatua orografiaren eta malden gainean, eta neutroa beste lurralde plan batzuei dagokienez, ingurumen dokumentu estrategikoaren arabera. Aukera hori baztertu da.

2. Kontsulta fasearen laburpena

2022ko maiatzaren 26an, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak hasiera eman zion eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egiteko faseari, araututako prozedurari jarraituz.

Espedientean ageri den informazioaren arabera, kontsultatu diren erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jaso da, baita erantzun dutenena ere (X batekin adierazita), dataekin batera:

KONTSULTATU DIREN ERAKUNDE, ENTITATE ETA ELKARTEAK	JASOTAKO ERANTZUNA/EGUNA
URA – Uraren Euskal Agentzia	X (2022-05-31; 2022-09-12)
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	X (2022/07/05)
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza	X (2022/06/16)
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAlA elkarte	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumeneko Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartasuna	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Aranzadi Natura Zientzien Elkartea	
SEO Bird Life	
Arabako Kontzejuen Elkartea	
Añañako Kuadrilla	
Gaubeako Udala	
Uribarri Gaubeako Administrazio Batzarra	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Ura)	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X (2022/05/31)
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta hirigintza Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	

Hona hemen jasotako erantzunetan esandakoaren laburpena (Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 22/33 espedientean eta www.araba.eus eta <https://irekia.araba.eus/eu/partehartzea/ingurumen-ebaluazioa> web orrietan dago alegazioen edo gogoeten kopia osoa):

- Arabako Foru Aldundiaren Kultura Zuzendaritzak Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren txostena bidali du. Txosten horretan adierazten denez, espedientea aztertzean ikusi dute plan bereziaren eremuan ez dagoela historia eta arkitektura ondarearen elementurik; hortaz, zerbitzu horren iritziz, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ikuspegitik begiratuta, ondareari ez zaio kalterik egingo.

- Dokumentazioa aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazi du proiektuaren eremuan ez dagoela kultura ondarearen gaineko eraginik.

- URA - Uraren Euskal Agentziak txostena bidali zuen 2022ko maiatzaren 31n. Txostenean adierazten duenez, demarkazioaren kudeaketan elkarrekin eta berdin jarduteko printzipioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko erkidegoarteko arroen jabari publikoaren arloko jardueri buruz indarrean dagoen gomendioa garatzeko V. jarraibidean ezarritakoaren antzera (2016-02-04ko BOE, 30. zk.), agentzia horrek egiten duen txostena gorabehera, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari helarazi zaio txosten eskaera, uren arloan dituen eskumen espezifikoaren arabera, aipatutako gaiari buruzko txostena egitea komenigarritzat jotzen badu ere, bat etorrita Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin.

• 2022ko irailaren 12an, Uraren Euskal Agentziaren plangintza eta Obren Zuzendaritzaren txostena jaso zen, Gaubeako PD02 eremua zehazteko plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoari buruzkoa. Txosten horretan, aurrekariak, eremua, plan bereziaren helburua eta ingurumen dokumentuaren edukia azaldu ostean, gogoeta batzuk egiten ditu; hala nola, hauek: oro har, mendebaldeko zati txiki bat kenduta (50 m²), eremua ubideen polizia eremutik kanpo dago, eta hurbileko ubideak baino gorago dagoen hiri-lurzoru garatu batek banantzen du ubideetatik; beraz, uholde arriskua txikia da. Gainera, hiri-lurzoru horrek udalaren saneamendu eta hornidura sareetarako sarbidea dauka. Bestetik, plan berezia aplikatzearen ondorioz sor litezkeen hondakin urak arazteari dagokionez, HAPOak zehazten duenaren arabera, ur horiek udalaren sarearekin lotu beharko dira, gero Espejoko hondakin uren araztegiaren trata daitezten. Halaber, plan bereziak HAPOaren zehaztapenak garatzen ditu, azalera eraikigarria murriztu nahi baitu; horrenbestez, ez da aurrekusten eraikigarritasuna handituko denik. Bestalde, agentzia horrek aldeko txostena eman zion Gaubeako HAPOari, Euskal Autonomia Erkidegoko Antolamendu Batzordearen barruan, 2016an, eta Konfederazio Hidrografikoak ere nahitaezko irizpena eman zuen izapidearen esparruan, plan bereziaren arabera hirigintza garapenaren hornidura bermatzeko baliabideak edukitzeari buruz. Uraren Euskal Agentziak amaitzeko esan zuen plan bereziaren ondoriozko jarduketek, a priori, egoera onean edukiko dituztela eremuko lurrazaleko eta lurpeko urak, eta gogorarazi zuen, ur ingurunea babestuko dela bermatze aldera, plan berezia garatzeko ondorengo eraikuntza faseetan bermatu begin beharko dela, batetik, drainatze naturaleko sarera isurtzen diren material finak eta kutsatzaileak murriztea eta, bestetik, uren kalitateari ez eragitea. Horri begira, egon litezkeen isuriek hurbileko ubideak kaltetzen ez dituztela ziurtatzeko atxikipen sistema egokiak jarri beharko dira.

• Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak Natura Ondarearen Zerbitzuak emandako txostena igorri du, kontuan har dadin ingurumen ebaluazio estrategikoa egitean eta plana bera diseinatzean. Txosten horretan, proposamena laburbildu ondoren, natura ondareari egingo zaion erasana aztertzen da, eta aintzat hartu beharreko zenbait alderdi azaltzen:

Batetik, jartzen duenaren arabera, igorritako ingurumen dokumentuak oso azaletik aztertzen ditu natura ondareari eragingo litzazkiokeen inpaktuak. Adierazten duenez, Euskadiko Datu Espazialen azpiegituraren arabera (IDE, geoEuskadi), gaur egun, arantzadi batek hartzen du eremuaren zatirik handiena, eta ingurumen dokumentuak ez du xehetasun handiagorik azaltzen zer landaredi kenduko den (eragindako azalera, bertan dauden espezieak, kontserbazio egoera eta abar).

Aurrekoagatik, zerbitzu horrek esan du ezin dezakeela baloratu planteatu den 1.125 m²-ko eremu libre sortzea neurri nahikoa den; hau da, kenduko den landaredi naturalaren balio-kidea izango ote den. Analisi zehatzagorik ezean, adierazi du ez dirudiela sortutako inpaktua konpentsatzen denik. Hori dela-eta, zuzendaritza horrek uste du ingurumen dokumentua zentzu horretan berrikusi behar dela. Berrikusketan, azaleraren deskribapena egin beharko da, erasango den landarediaren kontserbazio egoera azaldu beharko da, eta analisi horri egokitutako neurriak planteatu beharko dira. Adierazi du agian konpentsazio neurriak hartu beharko direla plan bereziaren eremutik kanpo, natura ondarea galduko ez dela ziurtatzeko. Amaitzeko adierazi du neurriok eremuko araudian jaso beharko liratekeela, baldintzapen gisara, benetan aplikatuko direla bermatze aldera.

3. Ingurumen balorazioa. Erasana izan dezaketen ingurumen balio handieneko elementuak. Landarediaren karakterizazio xehea. Ingurumen inpaktu nagusiak

3.1. Ingurumen dokumentu estrategikoak landarediari eta habitatei buruz emandako informazioa.

Ingurumen dokumentu estrategikoak, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29.1.d) artikulua aplikatzeko, plan berezia garatu aurretiko ingurumen karakterizazioa egiten du seigarren apartatuan, eremuko elementuak deskribatuz eta aintzat hartutako aukerek elementu horietan izan dezaketen inpaktua baloratuz (7. apartatua).

Halere, uste dugu ingurumen karakterizazio hori oso orokorra dela eta oso eskala zabalean eginda dagoela; gainera, eremuan ingurumen balio handiena duten elementuak ez daude behar besteko xehetasunekin azalduta (bereziki, landarediari/lorari eta habitatei dagokienez).

Ingurumen dokumentu estrategikoak besteren artean adierazten du plan bereziaren eremua ez dagoela ez naturagune babestu batean, ez araudi autonomikoak, estatalak edo europarrak babestutako edo nazioarteko hitzarmenak berrestearen ondoriozko araudiak babestutako eremu periferiko batean. 2000 Natura Sareari buruz adierazten duenez, aztergai dugun eremua Omecillo-Tumecillo kontserbazio bereziko eremutik (ES 2110005) hurbil dago, baina plangintzaren eragin eremuak ez dio inpakturik ekarriko. Batasunaren intereseko habitatei dagokienez jasotzen duenaren arabera, eremua ez dago habitat horietako baten mugen barruan; halere, Omecillo ibaiaren ibaiertzeko basoa (habitataren kodea: 91E0*) hurbil dago (0,1 km), eta erkameztien habitata duen toki bat 30 m-ra dago.

Horri buruz, adierazi beharra dago, Uribarri Gaubeako hirigune ia osoa KBEaren babes eremu periferikoaren barruan dagoen arren (100 m-ko banda eremuaren mugetaraino), plan bereziaren eremuan gasa instalatzeko gunea baino ez litzatekeela izango, eta mendebaldetik hurbilen dagoen ingurunea banda horren barruan kokatuko litzateke, 500 urteko errepikatze denborako uholde arriskua duen eremutik kanpo betiere (iturria: goeuskadi).

Eremua, era berean, ez dago erabilera publikoko mendietan, ezta interes bereziko eremuetan edo arriskuan dagoen faunarako katalogatutako eremuetan; halaber, plangintza hiri-lurzoruan kokatuta dagoenez, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza eta basogintzako eta ibai eta arroetako lurralde plan sektorialen aplikazio eremutik kanpo dago. Omecillo ibaiaren uholde lautada eta hegalak daudenez, eremuko akuiferoen zaurgarritasuna ertaina dela adierazi da, margazko materialei, lutiei eta hareharriei dagokienez. Ingurumen dokumentu estrategikoan jasotzen denez, interes hidrogeologikoa duen eremu batean dago, Gaubeako udalerrri ia osoa bezala.

Plan bereziak ekar ditzakeen ingurumen inpaktu nagusiak ingurumen dokumentu estrategikoaren 7. apartatuan jasotzen dira. Dokumentu horretan, hautatu den aukeraren inpaktuaren balorazioa "positiboa" da orografiaren inguruneke elementuetarako eta maldetarako, paisaiarako, kultura ondarrerako, ekonomiarako eta lurralde plan konkurrenteetarako; zaratari eta kalitate atmosferikoari dagokienez, "neurritzakoa" da, eta landarediaren elementurako "ez da esanguratsua". Gainera, II. eranskinaren 2. zerbakian adierazten denez, inpaktua "txikia" da floraren elementurako, landaredirako eta habitat naturaletarako. Halaber, ez zaio arreta berezirik jarri malden eginkizun egonkortzaileari, ezta maldek lur jausiak saihesteko izan dezaketen eginkizunari ere, eta, hizpide dugun kasuan, eginkizun horrek berebiziko garrantzia du.

Ingurumen organo honen ustez, ingurumen dokumentu estrategikoak, aipatutako elementuen gaineko ingurumen inpaktuen identifikazioan, ez du zehaztasunez azaltzen zer landaredi desagerraraziko den hautatutako aukera (1.a) aplikatuz gero.

Landarediari eta lorari buruz, ingurumen dokumentu estrategikoak adierazi du, laburbilduz, eremuak ez duela bat egiten arriskuan dagoen flora lehengoratzeko eremu batekin ere edo Arriskuan dauden Euskadiko Espezieen Zerrendan sartutako kontserbazio eremu batekin ere. Bestalde, dokumentu horren arabera, bertako lore komunitatean, batez ere, soro landareak eta landare erruderalak, erkametz oineko orla erako heskaiak (*Q. Faginea*), landaredi azpimediterranea eta Bromion serieko urteko gramineo larreak daude (EAEko landarediaren mapa, 2003). 7.1. "Aztertu diren aukerak" apartatutik (zehazki, inpaktua baloratzeko 5., 6. eta 7. tauletatik) ondorioztatzen denez, erkametz oinak "txikiak" dira; 8. "Ondorio txarrak prebenitu, murriztu eta zuzentzeko neurriak" apartatuan (48. or.), berriz, oin horiek "gazteak" direla ondorioztatzen da, eta informazio bera atera dezakegu II. eranskinen 3. apartatutik ere (7. eta 8. taulak). Hautatutako aukerak inguruneke elementuen gainean izango duen inpaktua baloratzeko 6. taulan, landaredi estaldura galduko dela aipatzen da, baina ez da argitzen galera horrek topatu diren erkametz oin "txikiei" eta "gazteei" eragingo ote dien. Nolanahi ere, ingurumen dokumentu estrategikoak gaizki baloratu du elementu horren gaineko inpaktua (Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren txostenean azaltzen da), "esanguratsua ez dela" balioetsi baitu.

Fauna aztertzeko, 100 km²-ko azalerako lauki espazialei buruz dagoen informazioa erabili da oinarritzat (Espainiako Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Inbentarioa), baina plan bereziaren eremua 0,01 km²-koa da; hortaz, atal hori ere orokorra da. Oro har aipatzen da Omecillo ibai hurbila eta inguruko mendizerrak arriskuan dauden espezieak kontserbatzeko garrantzitsuak direla.

Azken batean, ingurumen dokumentu estrategikoan ageri den informazioarekin (hainbat iturri kartografiko erabili dira) ezin daitezke xehetasunez identifikatu eta kuantifikatu aipatutako ingurumen elementuen gaineko inpaktuak.

Eremura egindako bisitek, baina, aipatutako alderdietan hautemandako zehaztasunik eza arindu dute, honako informazio hau eman baitute:

3.2. Eremuko landarediaren eta habitaten ingurumen karakterizazio xehea.

Lehenik eta behin, nabarmendu egin behar da zehaztu nahi den eremua oso testuinguru gizatiartuan dagoela, etxebizitzak, egunez arreta ematen duen landa zentro bat eta aparkaleku bat baititu iparraldean eta mendebaldean; hain zuzen ere, eremu horietan egiten du muga hiri-eremu finkatuarekin. Lurzatietan bertan, hainbat partzela ditu; besteak beste, gas instalazio bat, linea elektriko bat, hondakinak gaika biltzeko gune bat eta udalaren hornidura eta saneamendu sarerako sarbidea; gainera, perimetroan bide zorua dago. Hona hemen krokis txiki bat (3. irudia):



3. irudia. Eremuko erabileren eta landarediaren gutxi gorabeherako irudia. 2012ko ortoargazki baten gainean egin da, oso itzal gutxi edo batere itzalik ez duelako; beraz, argi ikus daitezke erabileren eta landaredi moten gutxi gorabeherako mugak

Eremuak, berez, ez dio ihes egiten gizakien eraginari; aspalditik datorrela esan dezakegu, eta horren erakusgarri da mendebaldean duen nekazaritza eraikina, 1800ekoa baita (iturria: Arabako katastroa). Baratzeak, higitutako lursailak, hiriko eta nekazaritzako hondakin solidoak isurtzeko guneak, lur mugimenduak, betegarriak eta makineria igaro izanaren zeinuak dauzka, baita, zati handi batean, asaldatutako inguruneen lotzen zaien landaredi erruderal-nitrofikoa ere (4. irudia, 1-9 irudiak).



4. irudia. 1-9 irudiak. Eremuko eragin antropikoaren adierazpen batzuk

Ingurumen dokumentu estrategikoan, ez dira aipatzen hondakin solidoak isurtzeko puntuak plangintzan, baina, oso kontuan hartu beharko da guneok kendu eta baimendutako zabortegi batera eramateko ideia, inpaktua positiboa izan dadin.

Eremuak, giza jardueren ondorioz asaldurak izan baditu ere, erkamezti heldu bat eta harrizko iturburu edo iturri bat (La Pollina iturria) kontserbatu ditu, eta gaur arte iritsi zaizkigu. Iturriak eta zuhaitziak intereseko multzoa osatzen dute, babestu beharrekoa, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Honako paragrafo hauetan, eremuko landaredi nabarmenena karakterizatuko dugu; horri begira, beharrezko ikusten dugu, bien arteko harremana dela-eta, lursailaren geomorfologia bazter ez uztea.

Hala, plan bereziak zehaztu nahi duen eremuak malda handiko bi ezponda dauzka iparraldeko eta hegoaldeko mugetan; ekialderantz egin ahala, biek ala biek galtzen dituzte altuera eta makurdura. Batez ere, hegoaldeko ezpondan eta haren ingurune hurbilean garatu da landaredi gehien. Baliteke ezponda horren malda handiek iragandako garaietan laboreak finkatzea zaildu izana: agian, horregatik biziraun dute bertako zuhaitziek. Era berean, baliteke gizakiek aspalditik jakitea landarediaren sustrai sistemak oso zeregin garrantzitsua betetzen duela lurra finkatzen eta ez erortzen laguntzeko orduan. Edonola ere, arrazoia edozein izanik ere, oraindik orain erkamezti bat dago La Pollina iturriaren inguruan, hegoaldeko ezpondan hedatzen dena. Ingurumen dokumentu estrategikoan, bi ezpondak aipatzen dira, baina ez da zehaztasunez azaltzen zer landaredi dagoen bertan eta inguruetan.

3.2.1. Iparraldeko ezponda eta horri lotutako landaredia.

Iparraldeko ezpondak (5. irudia), oro har, hegoaldeko ezpondak baino kota alde handiagoa dauka. Azpian, bidetxo bat dauka, eta, gainean, linea elektriko bat; bada, dirudienez, landaredia aldizka mozteko betebeharraren ondorioz, betebeharrak hori bidean nahiz linea elektrikoaren zortasun eremuan mantentze lanak egiteko izan gorabehera, bertan garatzen diren espezieak ezin daitezke neurri txikitik edo zuhaixka formatik igaro; batez ere, honako landaredi honetaz ari gara: astigarrak (*Acer campestre*), erkameztiak (*Quercus faginea*), zumarrak (*Ulmus sp.*), hurritzak (*Corylus avellana*),





arrosak (*Rosa sp.*), sasiak (*Rubus sp.*) eta abar, baita landare igokariak ere; adibidez, huntza (*Hedera helix*) eta aihenzuria (*Clematis vitalba*). Nolanahi ere, bertako landarediak funtsezko eginkizuna betetzen du ezponda egonkortzeko eta higadura fenomenoak gutxiagotzeko orduan.



5. irudia. Iparraldeko ezponda, bidea eta linea elektrikoa, tamaina txikiko astigarren birsorkuntzarekin

3.2.2. Hegoaldeko ezponda eta bertako eta/edo inguruko landaredia.

Hegoaldeko ezpondan (goiko bideak koroatzen du) edo ezpondaren hurbileko ingurunean, landaredi autoktonoak garapen handiagoa izan du, eta, bertan, erkamezti (*Quercus faginea*) baliotsu bat dago, zuhaitz estratuan besteak beste honako espezie lagun hauek dituen: astigarrrak (*Acer campestre*), lizarrak (*Fraxinus excelsior*), hurritzak (*Corylus avellana*), gereziondoak (*Prunus avium*) eta zumarren bat (*Ulmus minor*). Erkamezti azpimediterraneo baten hondarra da, eta, nolabait, berezia dela esan dezakegu, Gaubeako herrigunearekin eta inguruko erabilera historiko-kulturalekin duen loturagatik.



6. irudia. Erkametzen (goian ezkerrean, erdian eta behean eskuinean) eta intsusen (behean ezkerrean) zuhaitz aleak eta La Pollina iturria (behean erdian). Goian, ezkerrean eta eskuinean:

Ruscus aculeatus espeziearen populazioa

Zuhaizti horren barrualdean, La Pollina iturria edo iturburua nabarmendu behar da, giroa fresko eta heze edukitzen laguntzen baitu eta berori inguratzen duten eta zuhaiztiaren zati diren intsusa aleak garatzea ekarri baitu (intsusa batzuk oso handiak dira). Halaber, zumeren bat (*Salix sp.*) ikus daiteke iturburutik jariatzen den ur harira nolabait lotuta. Oihanpeko zuhaixken estratuan, zuhaixka arantzatsuak daude; hala nola, sasiak (*Rubus sp.*), errosazeoak (*Rosa sp.*), erratzak (*Ruscus aculeatus*) eta elorri zuriak (*Prunus spinosa*). Halaber, landare igokari ugari daude; adibidez, huntzak (*Hedera helix*), ahuntz hostoak (*Lonicera sp.*) eta aihenzuriak (*Clematis vitalba*) (6. irudia, 1-9 irudiak).

Tokiko interesaren ikuspegitik begiratuta, nabarmentzekoa da hegoaldeko ezpondaren men-debaldean La Pollina iturria edo iturburua egotea (3. irudian, izartxo gorria). Bada, iturria harriz inguratutako egurrezko mailak dauzkan multzo estetikoki deigarri batean dago, nahiz eta hiri hornidurarako harguneen artean kartografiatuta egon ez. Ingurumen dokumentu estrategikoak balioa ematen dio, tokiko intereseko ondarea dela adierazten baitu, nahiz eta inbentarioan edo katalogoan sartuta egon ez; bada, proiektatutako eremu libreko parke berdearen barruan geratuko da.

Hegoaldeko ezpondaren eremuan detektatu den erkametz batek ohiko diametroa (50 zentimetro) gainditzen duen tamaina dauka (6. irudia, goian ezkerraldean), eta 10 zentimetrotik gorako diametroa dauka oinarrian; bada, huntz batek besarkatzen du. Adin aurreratua duela esan nahi du horrek, agian ehun urtetik gorakoa (plan bereziaren eremuko zaharrena izan daiteke). Ehun urte baino gehiago dituela esateko, Bravo Fernández, A, Serrada Hierro, R. eta Palacios Carvajal R. egileen ikerketako datuak hartu dira: "Crecimiento diametral del quejigo (*Quercus faginea* Lam.) en monte bajo y respuesta a resalvos de conversión"; Espainiako Basogintzako Bosgarren Biltzarra. Gainera, kontuan hartu behar da zuhaiztiko beste erkametz batzuen diametro arruntak 25 eta 30 zentimetrotik gorakoak direla eta horrek esan nahi duela 50 eta 60 urte inguru dauzkatela (gainera, ortoargazki historikoek baieztapen hori berresten dute). Edonola ere, azalerari dagokionez, erkamezti xumea osatzen dute, Arabako lurralde historikoan ordezkartzat mugatua duena; halere, tokiko mailan, kontuan hartzekoa da, eta, beraz, ebaketatik babestu behar da, aintzat hartzen baditugu berezitasuna, lotutako biodibertsitatea, funtzio ekologikoak eta hegoaldeko ezpondari eusteko eginkizuna.

Bestalde, adierazi beharra dugu erratza (*Ruscus aculeatus*) (6. irudian, goian eskuinaldean) Arriskuan dauden Euskadiko Espezieen Zerrendan sartu zutela, interes bereziko kategorian (Agindua, 2011ko urtarrilaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Basa eta Itsas Fauna eta Florako Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatzen duena eta testu bakarra onesten duena), eta Europako Kontseiluaren basoko habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzeari buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren V. eranskinean jasotzen dela.

Ingurumen dokumentu estrategikoak ez du aipatzen eremuan espezie hori dagoenik, eta, era berean, ez du berariaz aipatzen hegoaldeko ezpondan bertan eta inguruetan erkamezti heldu bat dagoenik.

Azaldutako landare komunitateak Batasunaren intereseko 9240 habitataren zati txiki bat osatzen du: harizti iberikoei dagokie habitat hori (*Quercus faginea*). Hauskorrak eta zaurgarriak direnez, kontserbazio egoera delikatua dutela esan genezake, tamaina handiko aleak badaude ere horien azalera murrizta delako eta asaldatuta dauden edota, besteak beste, hondakin solidoen isuriak hartzen dituzten lursailak dauzkatelako.

Ingurumen dokumentu estrategikoan, ez da aipatzen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren txostenean jasotzen diren tamaina nabarmeneko zuhaitzak daudela, ezta, jakina, non dauden ere; halaber, ez da zehazten zer zuhaizti kenduko diren eremua xehatzeko plan berezia gauzatzearen ondorioz. Hutsune hori planaren behin betiko testuan zuzendu beharko litzateke, edo eraikuntza lan berrietarako idazten diren hirigintza proiektuetan; horretarako, kontuan hartu beharko da ebazpen honetan azaldu eta ezarritakoa.

Iturriak jariatzen duen ura berehala drainatzeko, ur hari txiki moduko bat dago (7. irudia, ezkerrean), iparraldera begira, eta ur lasterre lotutako landarediaren arabera (zumeren bat eta giro hezeetako beste espezie batzuk, 7. irudia, erdian) suma daiteke nondik dabilen. Metro gutxi batzuetara, hegoaldeko ezpondako zuhaitz landarediaren eremutik kanpo, irudian agertzen den bezalako putzuren bat dauka (7. irudia, eskuinean); seguruenik, iturburutik datorren urarengatik.



7. irudia. Iturburutik datorren hezetasanari lotutako landaredia

Nolanahi ere, garrantzitsua da lursaileko drainatze naturala aztertzea, ingurumen dokumentu estrategikoan ez baita egin. Bada, lursaileko urak drainatzean, ez zaio kalterik egin beharko, hirigintza dokumentuan ikus daitekeenez, oro har puntu horretatik beheragoko kotan proiektatu diren etxebizitzaren segurtasunari.

Zuhaiztiaren babes eginkizunari erreparatzea merezi du, aipagarria dela baiteritzogu: hegoaldeko ezponda egonkortzen du, higadura fenomenoak gutxiagotu eta ezponda erortzea saihesterekin batera. Basoko sustraien sareak oso eginkizun garrantzitsua betetzen du, besteak beste, malda finkatzeko, urari infiltratzen laguntzeko eta, azken batean, ezpondan bertan landare komunitate bat finkatzeko unean. Hurrengo irudian, hegoaldeko ezpondan hazten diren zuhaitz eta zuhaixka espezieak agertzen dira. Eskuineko irudian, ezpondan bertan hazten den erkametz bat ageri da; ezkerreko eta erdiko irudietan, berriz, ezpondan bertan finkatutako zumeak ikus daitezke.



8. irudia. Hegoaldeko ezpondan garatutako landaredia, ezponda ez erortzeko giltzarria

Euste fenomeno hori garrantzitsua da; izan ere, eremuaren erdialdera lur jausirik ez erortzen laguntzen du, eta, aldi berean, egonkortasuna ematen dio goiko bideari, zeinak ibilgailuen zirkulazioa jasaten baitu.

Hortaz, hegoaldeko ezpondako landaredia kentzen bada, landaredi orban hori oso txikia izanda ere, ebazpen honen 3.2.2 apartatuan aipatutako eginkizunak (landaredi horri lotutakoak) desagertu egingo dira, eta nekez onar litezkeen ingurumen inpaktuak eragingo ditu horrek.

Bestetik, nabarmendu egin behar dugu hegoaldeko ezpondaren ekialdeko muturretik hurbil (ezpondaren malda eta tamaina txikiagotzen diren tokian) neurri eta estetika interesgarriak dituen erkametz ale bat dagoela, zeinak *Vespa velutina* espezie inbaditzailearen habi aktibo bat baitauka.



9. irudia. Interes estetikodun erkametz ale bat, *Vespa velutina* espezie inbaditzailearen habi aktibo batekin

Ale horrek 10-12 metroko altuera gaindi lezake, eta, hain zuzen ere, altuera horretan finkatu da liztor asiarraren (*Vespa velutina*) habi aktiboa. Bada, habia arriskutsua izan daiteke bertara hurbiltzen direnentzat eta zuhaitzaren azpian egin daitezkeen obretako langileentzat, babestu nahi diren ekosistemari eta biodibertsitateari kalte eragiteaz gainera. Habia aurretik kentzen ez bada, plangintzaren ondoriozko eraikuntza proiektuek aintzat hartu beharko dute.

Eremura eta, zehazki, erkameztira lotutako faunari dagokionez, hegazti paseriformeen zenbait espezie detektatu dira; hala nola, zozo arrunta (*Turdus merula*), birigarro arrunta (*Turdus philomelos*), txinbo kaskabeltza (*Sylvia atricapilla*), txantxangorria (*Erithacus rubecula*), kaskabeltz handia (*Parus major*) eta errekatxindorra (*Cettia cetti*). Azken hori zuhaitziko landaredi orban fresko eta hezeenean, La Pollina iturritik hurbil, non erkametzen ondotik intsusak, lizarrak eta sahatsen bat datozen. Landaredi orban horren inguruan, halaber, gabirairaren bat (*Accipiter nisus*) ikusi da. Hain zuzen ere, zuhaitzi horrek paper garrantzitsua betetzen du babesteko, elikatzeke eta ugaltzeko toki gisara, eta ez hegaztientzat bakarrik, baita beste fauna talde batzuetarako ere (mikrougaztunak, anfibioak, narrasti txikiak eta abar).

Hegoaldeko ezpondaren inguruko landarediaren karakterizazioarekin amaitu aurretik, komeni da lehen deskribatutako zuhaitziaren mugaketa kartografikoari eta azaleraren balioespenari buruzko gogoeta bat egitea. Kontuan hartu behar da oro har ez dela erraza izaten baso baten zatirik helduenaren eta bertako baso orlako heskaien artean banalerro bat marraztea, landaredia denboran jarraitua den eta askotariko formak dituen continuum dinamiko baten bidez irudikatzen baita, eta ez muga argi eta aldaezinak dituzten poligono finkoen bidez.

Kasu honetan, lursailaren erabilera historikoak (neurri handi batean, bertako geomorfologiak baldintzatuta daude) eta eragin antropikoa aintzat hartuz, gutxi gorabeherako lehen mugaketa marra marraztu ahal izan dugu, erkametz helduak dituen eremuaren eta erkametz heldurik ez duen eremuaren artean. Bigarren eremua iparraldeko ezpondaren eta hegoaldeko ezpondaren arteko bi-tarteko eremua da, bi ezpondena baino askoz ere malda txikiagoa duena. Mugaketa hori argiagoa da lursaillean bertan aireko argazkietan baino; hala ere, argazkien bidez, erabakia berma daiteke.

Ingurumen arloan kalitate eta hauskortasun handiak dituen eremuaren gutxi gorabeherako mugaketa bat egin da, babestea egokituz jotzen dena; batez ere, landa bisitetan eta azken hamarkadetako ortoargazkien azterketan oinarrituta; horrela, gutxi gorabehera, 2.412 m²-ko azalera lortu da, berdegune gisa babesteko interesgarria. Mugaketa horrek (gero azalduko dugu) funtsezko erreferentzia izan behar du, plan bereziko berdegunea zehatz-mehatz zehazteko.

Gutxi gorabeherako azalera horrek desberdintasun handiak dauzka plan berezian berdegune gisa planteatu denarekiko, honako irudi honetan beha daitezkeen moduan:



10. irudia. Kontserbatu beharko litzatekeen erkameziaren gutxi gorabeherako azaleraren (marra urdina) eta plan berezian berdegune izateko erabiliko den eremuaren (marra gorri etena) arteko aldea. Izartxo gorrian, La Pollina iturria. Zirkulutxo urdinean, gaur egun zurezko landarerik ez duen eremua

Are, 2012ko ortoargazkia oinarri duen irudiari (kolore gorria) eremua xehatzeko plan bereziak (1. aukera) lurzoru/eremu librerako bideratu nahi duen gutxi gorabeherako eremua gainjartzen badiogu, zeina parkea (1.125 m²) eta bidexka berdea (1.030 m²) izango baita (marra gorri etena), mugaketa horrek eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren txosteneko erkameziaren mugaketak (10. irudia) bat egiten ez dutela ikus daiteke (marra urdinarekin eta zati batean gar dena den hondoarekin irudikatu da azken hori). Hau da, gaur egungo erkameztiko eremu garrantzitsu batzuk plan bereziak planteatutako berdegunetik kanpo geratuko lirateke, eta, beraz, eremuok deuseztatzeko aukera sortuko litzateke. Adierazitako arrazoiak direla-eta, inpaktu horrek berrikuspina behar du: plan berezian ezarritako berdegunearen mugaketa berrikusi behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntza estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuaren 6.1 artikulua honako hau ezartzen du, jarduketa integratuetan eta/edo eraikigarritasuna gehitzeagatik eragindako zuzkidura jarduketetan hiri-lurzoru finkatugaberako gutxieneko estandarrik ezartzeko, tokiko sistema orokorren zuzkidura eta ekipamenduetarako lursailak erreserbatzeari dagokionez:

“Nagusiki bizitegitarako erabiltzeko hiri-lurzoru finkatugabea bai eraikigarritasun haztutua handitu delako, bai hiri-lurzoru finkatugabea delako, bizitegitarako erabiltzeko hiri-lurzoru finkatugabea barne hartuta estandar hauek ezarri beharko ditu hirigintza planeamenduak, gutxieneko gisa:

a) Berdeguneetarako eta espazio libreetarako (parkeak, lorategiak, oinezkoentzako espazioak eta plazak): arearen edo zuzkidura jarduketaren guztizko azaleraren ehuneko 15 gutxienez, sistema orokorrak alde batera utzita (...).”

Kasu honetan, eremuaren guztizko azalera 14.348 m²-koa denez, 2.152,2 m² dira ehuneko 15 hori; bada, eremua xehatzeko plan berezian berdeguneetarako planteatzen diren bi gunek batuz, 1.125 m² (parke berdea) + 1.030 m² (oinezkoentzako bidexka), kopuru horretara iristen gara (ehuneko 15,2).

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren txostenak esaten duenez, proiektatutako parkearen eta oinezkoentzako bidexkaren azalera batu behar dira, unitate bakarra eratze aldera, eta erkameztia berdegunean sartu, kontserbatzeari begira. 10. irudian urdinez marraztutako mugek mugatuko lukete, gutxi gorabehera, azken azalera hori. Hortik ondoriozta dezakegu zurezko

landaririk ez duten eremuak (adibidez, La Pollina iturriaren mendebaldetik 10 m eskasera dagoen eta batzuetan aparkaleku gisa erabiltzen den eremu laua) kendu beharko liratekeela plan berezian berdegune gisa mugatutako eremutik, eta erkamezti ia osoa hartzen saiatzeko baliatu beharko litzatekeela azalera hori.

Hegoaldeko ezpondan hainbat urtez garatu den zuhaitz eta zuhaixka landaredia funtsezkoa da ezponda egonkortzeko; izan ere, ezpondako higadura prozesuak murrizten dituen sustrai sarea sortu da bertan. Horregatik uste dugu hegoaldeko ezpondako zuhaitzia eta landaredia kentzeak, natura ondarea galarazteaz gainera, ezponda egonkortzeko eta higadura fenomenoak murrizteko elementu giltzarri bat galtzea ekarriko lukeela. Beraz, azkenean onesten den planean, aintzat hartu beharko da egitate hori.

3.2.3. Erdialdeko edo bitarteko eremua.

Erkameztiaren, iparraldeko ezpondaren eta baratzeen arteko eremua. Hurrenez hurren, 3. eta 11. irudietan jasotzen dira.



11. irudia. Zuhaixka sakabanatuak dituen eremu argitu eta asaldatua

Zati honetan, argitu eta zabaldutako eremuak daude, lursail asaldatuei lotutako landaredia (erruderal-nitrofiloa) eta erkameztiaren etapa erregresiboetako zuhaixka eta sasi arantzatsuak (hala nola, *Cornus sanguinea*, *Prunus spinosa*, *Rosa sp.*, *Rubus sp.*) dauzkatenak, seguru asko *Prunus* generoko aranondo hibridoak diren beste ale batzuekin eta landare igokari ugariarekin batera (aranondo hibridoek jatorri antropikoa dute, baratzeetatik hurbil baitaude). Neurri baxuko zuhaitz txikiak daude (batez ere, *Acer campestre* eta *Quercus faginea* espezieak), sakabanatuta, erkameztiaren etapa erregresiboan; oro har, diametro normalak ez ditu 15 zentimetroak gainditzen, ezta 6 m-ko altuera ere. Makineria astuna ibiltzen delako, lur mugimenduak egiten direlako eta betegarriak jartzen direlako zantzuak daude, sustraitik erauzitako zuhaixkak baitaude. Ekialdeko muturrean landatuta, *Quercus robur* espezieko aleren bat dago, 2 m-tik beherakoa. Guztizko azalera hektarea erdikoa da gutxi gorabehera.

3.2.4. Ezpondako landaredia lehengoratzeari eta ingurumen dokumentu estrategikoan adierazten diren ingurumen ondore aurreikusgarriei buruzko gogoetak.

Ingurumen dokumentu estrategikoak ez ditu zehaztasun handiz azaltzen landarediaren eta habitaten ingurumen karakterizazioa, ezta elementu horien gaineko inpaktua ere; hala ere, dokumentuan La Pollina iturriaren ingurunea kontserbatzen laguntzeko neurri bat jasotzen da, elementu horren inguruan parke berde bat sortzea proposatuz. Horri esker, zeharka, erkameztiaren zati bat babestuko litzateke.

Ingurumen ondore txarrak prebenitu, murriztu eta zuzentzeko neurrien artean, ingurumen dokumentu estrategikoak ezpondako landaredia lehengoratzea, parke berde bat sortzea eta oinezkoentzako bidexka egokitzea planteatzen du, eta neurri horien diseinuak aintzat hartuko ditu, besteak beste, espezieen hautaketa eta flora nahiz fauna autoktonorako habitataren diseinua. Halaber, neurrien diseinuak bat egingo du hirigintza estandarrekin. Adierazten duenez, espezie autoktonoetarako habitata sortuko da hiri zuhaitzietan eta berdeguneetan, eta espezieen hautaketak bat egingo du gutxieneko mantentze lanak egiteko eta ingurune biogeografikora hobeto egokitzeko betekizunekin, landaketetako marrak, birjapenen kostuak eta mantentze lanak murrizteko helburuz. Halaber, adierazten duenaren arabera, flora autoktonorako eta fauna laguntzailerako babeslekuak sortzeari buruzko irizpideak aintzat hartuko dira, hiri berdegunearen diseinuan habitata hobetu eta sortzeko jarduketak sustatze aldera.

Obren fasean, *Quercus faginea* espezieko oin gazteen inguruko neurriak hartuko dira, eta ale horiek parke berdean sartuko dira, perimetroko babesekin; bestetik, makineria, gordailuak eta igarotze eremuen kokalekuak diseinatu aurretik, kontuan hartuko da mugaketa hori. Eremuaren diseinuetan, lurzorua babestuko da, eta lurzoru biluziak gehiegi iragazgaiatea saihestuko da, higadura fenomenoak sor ditzaketan edo gaur egungo prozesuak larriagotu ditzaketan eremuak eta lur erazketak bazter utzita.

Aurrekoa esanda, ingurumen dokumentu estrategikoaren helburu orokorrak parteka ditzakegunez, ingurumen organo honek uste du hegoaldeko ezpondan egin daitekeen jarduketa onena, hain zuzen ere, ezpondan eta ezpondaren inguru hurbilean garatu den eta dagoeneko badagoen erkameztia kontserbatu eta babestea dela, ia-ia esku hartu gabe, animalia espezie ugari babestu daitezten eta biodibertsitate handia sar dadin barruan. Ezpondari lotutako erkamezti orbana kentzeak ez du zentzurik, kendu den eta tokiko potentziala den landaredia lehengoratzeko jarduketak egingo badira gero.

Beraz, ezkameztiaren eremuan kanpoko eta barruko erasanak saihestu beharko dira.

Obren fasean, zuhaitzia topografikoki mugatuko da, eta perimetroan babestu, elementu fisikoekin babestu ere, edozein kalte mota saihesteko, eta makineria astuna inola ere ezingo da barruan ibili edo aparkatu. Hortaz, zuhaitziaren barrualdean edo perimetrotik hurbil-hurbil ezingo da ibilgailuetarako biderik ireki. Neurri hori beharrezkoa da, ingurumen dokumentu estrategikoak esan bezala gehiegizko iragazgaiatea edo higadura fenomenoak saihestu nahi baditugu, zuhaitzi hauskor horretatik makineria igarotzeak lursaila trinkotzea eta iragazgaiatea ekarriko baitu; are, eurite garaian, materia organikoa arrastatuko litzateke, eta lurzorua txirotu.

3.2.5. Ibilbide berdeak.

Ingurumen dokumentu estrategikoan, ez da ibilbide berderik aipatzen. Egiaztatuenez, eremuak GR-282 Senda del Pastoreo bide naturalarekin egiten du muga iparraldean (12. irudia). Ibilbide berde hori Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde planean jasotzen da, eta bat egiten du Uribarri Gaubeako Elizaren kalearekin. Halaber, BTT-rako dela adierazten da: Valderejo-Añana BTT Zentroaren 3. ibilbidea da. Bide horrek eremuarekin egiten du muga iparraldean, eta landa bide gisa erregistratuta dago, 055-317-101 "Gaubeatik Villanañerako bidea" kodearekin, Arabako Landa Bideen Erregistroan.



12. irudia. GR 282 Senda del Pastoreo bideko, BTT ibilbideko eta landa bideko seinaleak

Azkenik, kultura ondarearen barruan, ingurumen dokumentu estrategikoan jada adierazitakoaz eta kontsulta fasean jasotako gogoetaz gainera, ingurumen dokumentu estrategikoan berriaz aipatzen ez bada ere, nekazaritzako eraikin bat dago plan bereziaren xede eremuaren barruan, 14. poligonoko 99. hiri-lurzatian, iturrira iristeko bidetik hurbil. Arabako Foru Aldundiaren katastro digitalean kontsultatu daitekeen informazioaren arabera, eraikin txiki laguntzailea da, eta 1800ean eraiki zuten. Interesgarria da eraikina kontserbatzea (planaren irudi kartografikoetan ikus daitekeenez, oinplanoa eta lorategia kontserbatzen ditu), iturriaren ingurunearekin batera multzo historiko-natural interesgarria eratuko litzatekeelako.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Uribarri Gaubeako (Gaubea) PD02 eremua (AR16h sektoera) xehe antolatze aldera behin betiko onetsiko den hirigintza dokumentuak eta dokumentu horren ondoriozko hirigintza dokumentu eta proiektuek barruan jasoko dituzte ingurumen dokumentu estrategikoan jasotzen diren prebentzio, zuzenketa eta jarraipen neurriak (8. eta 9. apartatuak), betiere neurri horiek honako prebentzio eta zuzenketa neurri hauek aldatzen edo aurkaratzen ez badituzte:

- Plan berezian planteatzen diren berdegunearen eta eremu librearen azaleraren forma eremuaren errealtate fisikora egokitu beharko da, baita horko ingurumenaren errealtatera ere, hegoaldeko ezpondan eta ezpondaren hurbileko ingurunean finkatuta dagoen erkameztia baxestu dadin, ebazpen honetan adierazten den gutxi gorabeherako mugaketa kartografikoari jarraikiz (10. irudia).

- Nolanahi ere, hirigintza proiektua egikaritu aurretik edo proiektua idaztean, jasotze topografikoa egin beharko da, zuhaitzi naturalaren erreferentziako eremua "berdegune eremu libre" gisa mugatu dadin, ebazpen honetan adierazten diren gutxi gorabeherako mugetan oinarrituta. Ingurumen organo honek berdegune horren eremu zehatza baloratuko du.

- Behin betiko onesten den plan bereziak lehentasuna eman beharko die kimaketei, ebaketen aurretik, eremu guztian eta ahal den aldiro, eta erkameztiko zuhaitzia eta habitata kontserbatzeko ildoak jarraitu beharko ditu: ildoek erkameztiaren kontserbazio egoera hobetu beharko dute.

- Aurreko baldintza betetzeko helburuz, zuhaitzia kudeatzeko dokumentu bat idatzi behar dela jasoko du hirigintza dokumentuak; bada, zuhaitzia kudeatzeko dokumentuan, aurreko apartatuan adierazitako ildoak jasoko dira, eta dokumentua eraikuntza proiektuari erantsiko zaio. Halaber, obren ingurumen jarraipena eta zaintza egiteko planean, aintzat hartu beharko da.

- Zuhaitzia kudeatzeko dokumentuak, besteak beste, honako neurri hauek jasoko ditu gutxienez: a) lanak hasi aurretik, mugak seinaleztatuko dira lursailean bertan; b) zuhaitziaren barrualdean ezingo da makineria astunarekin edo motordun ibilgailuekin ibili, ezta horiek aparkatu ere; c) goiko bidean mantentze lanak egiteko zabor bilketek, ahal dela, ez dute zuhaitzik ebakitzea ekarriko, eta ezpondako landarediari gutxienezko kaltea egingo zaio; d) zuhaitziaren barrualdean ezingo da zuhaitzik ebaki, behar bezala justifikatutako kausengatik egin behar denean salbu, ingurumen organoak aurretik onetsita; e) zuhaitzetan saneamendu jarduketak egin ahalko dira puntualki; f) oihanpean eta zuhaixken estratuan, jarduketak murriztuko dira –bereziki, ezpondan bertan–, ezponda finkatzen laguntzen baitute; g) La Pollina iturriaren hurbileko inguruneari balioa emango zaio; h) landaredia lehengoratzeko landaketa puntualak egin ahalko dira, espezie autoktonoekin.

- Hegoaldeko ezpondan eta ezpondaren hurbileko ingurunean, landarediaren artean dauden hondakin solidoen fokuak kenduko dira, eta baimendutako zabortegei batera eramane.

- Iparraldeko ezpondan eta beheko bidean dagoen landaredi autoktonoa kontserbatu beharko da, nahiz eta zuhaixkak edo neurri txikikoak izan, eta kimaketari emango zaio lehentasuna (ebaketaren aurretik), elementu hori mantentzeak ezpondaren egonkortasunari laguntzen diolako. Neurri horrek bat egin beharko du linea elektrikoaren zortasun zerrendan zuhaitzia mantentzeko eta bidea kontserbatzeko araudiarekin.

- Aurretik kendu ez bada, kontuan hartu beharko da habitataren mugako erkametz batean, hegoaldeko ezpondaren ekialdean (9. irudia), Vespa velutina liztorraren habi bat dagoela, beste mehatxu batzuen artean benetan arriskutsua izan daitekeelako obretako langileentzat.

- Babestu beharreko eremuan oinen bat kendu behar bada, halaxe jaso beharko da zuhaitzia kudeatzeko dokumentuan, eta ingurumen organoak baloratu egin beharko du. Kaltetu litekeen azalera konpentsatu egin beharko da, espezie autoktonoak landatuz eta/edo Gaubeako udalerrian narriatutako eremuetan ingurumena lehengoratzeko jarduketak eginez, eragindako azalaren hirukoitzean. Landaketan erabiltzen den materialaren jatorriari buruzko informazioa eman beharko zaio ingurumen organo honi.

- Hala badagokio, puntualki landare estaldura handiagoa behar duten eremu zehatzak identifikatuko dira hegoaldeko ezpondan. Landare estaldura indartzeko, landaketak edo aldaxkatzeak egin ahalko dira, edo bioingeniaritzako beste neurriren bat hartu, landaredi autoktonoaren egin-kizun egonkortzailea handitu dadin landaredi gutxiago duten edo ekintza antropikoak gehiago zigortu ahal izan dituen tokietan. Horrelakoetan, lehentasunez, eremuan aurretik zeuden espezie autoktonoak erabiliko dira.

- Lursailaren drainatze naturala aztertuko da; batez ere, hegoaldeko ezpondaren oinarrian dagoen La Pollina iturburuaren ingurunean. Urek etorkizuneko etxebizitzaren segurtasunari ez eragiteko moduan ibili beharko dute (etxebizitzak puntu horretatik beherako kotan proiektatu dira). Gainera, Uraren Euskal Agentziak adierazi bezala, plan berezia garatzeko eraikuntza faseetan bermatu egin beharko da drainatze naturaleko sarera ahalik eta material fin eta kutsatzaile gutxienez isurtzen direla eta uraren kalitateari erasanik egingo ez zaiola; bada, egon litezkeen isuriek hurbileko ubideei kalterik ez egitea ziurtatzeko atxikipen sistemak erabiliko dira.

- Eremuak GR-282 Senda del Pastoreo ibilbide berdearekin egiten duenez muga iparraldean, zeina Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bidean eta Ibilbide Berdeen Arloko Lurralde planean jasotzen baita, berariaz adierazi beharko da nahitaez eta modu loteslean aplikatu beharko dela Arabako lurralde historikoko ibilbide berdeei buruzko 1/2012 Foru Araua.

- Eremuak erregistratutako landa bide batekin egiten duenez muga iparraldean, Arabako lurralde historikoan landa bideak erabili, kontserbatu eta zaintzeari buruzko 6/95 Foru Araua aplikatzeko, kontuan hartuko dira arlo horretan eskuduna den foru organoak helburu horretarako eta hala badagokio ezartzen dituen zehaztapenak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 37. artikuluan oinarrituta, etorkizunean hirigintza garapenen bat izan dezaketean edo hirigintza kalifikazioan aldaketak izan ditzaketean eremu akustikoek inpaktu akustikoaren azterlan bat eduki beharko dute hirigintza eta ingurumen izapideari begira, 37. artikuluan adierazten diren edukiekin.

- Hirigintza proiektuen ondoriozko lanekin hasi aurretik, baita lanak egin bitartean ere, banakako zuhaitzak identifikatzeko eta perimetralki babesteko neurriak hartuko dira, eta, hala badagokio, babes banda bat ezarriko da zuhaitziaren perimetroan, makineria ibiltzeagatik edota gordailuak egoteagatik eragindako kalteetatik babesteko.

- Landare lurra, kendu behar denean, gaika kendu beharko da, eta behin betiko kokalekuetan birbanatu beharko da, berehala.

- Hala izan ezean, plan bereziaren eremuko zona batean metatuko da, gehienez 2,5 m-ko altuera duten sekzio trapezoidaleko masetan.

Lur hori, lehenetsunez, lurzorua lehengoratzeko lanetan berrerabiliko da.

- Plan berezia garatzeko jarduketak gauzatzean, obrek irauten duten bitartean, lubrifikatzailak edo erregaiak biltegitartzeko ontzi estankoak, biltegi iragazgaitzak edo beste sistema batzuk erabiliko dira. Debekaturik dago erabilitakoak isurtzea; baimendutako kudeatzaile bati eman behar zaizkio horiek. Ontzi estankook erkameztitik kanpo jarri beharko dira, hegoaldeko ezpondaren ingurua babesteko. Debeku hori beste hauetara ere hedatzen da: hormigoi hondakinak, eraikinetako materialak, lurrak eta abar; horiek guztiak baimendutako hondakindegia edo zabortegetara eraman beharko dira. Bide zoruak kentzean sortutako eraikuntza eta eraisketa hondakinak eraikuntza eta eraisketa hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatu beharko dira.

- Eremuan dagoen gas instalazioa, hain zuzen ere, naturagune babestu baten babes eremu periferikoan dagoenez (Omecillo-Tumecillo KBEa), hortik hurbil kokatzen diren jarduketek aintzat hartu beharko dute eremua kontserbatu eta kudeatzeko araudia.

- Obren fasean ingurumena zaintzeko eta jarraipena egiteko planak ziurtatu egin beharko du, ahal duen neurrian, aurreko baldintza erabat betetzen dela.

Ingurumen baldintza hauek betetzeak ez du salbuesten ingurumena ebaluatzeko eta/edo kontserbatzeko indarreko beste lege xedapen aplikagarri batzuk betetzetik.

Aurreko baldintzak eremuko araudian jaso beharko dira, eremua garatzeko baldintzapen gisara, benetan aplikatuko direla bermatze aldera.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan emandako eskudantziak baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Uribarri Gaubeako PD02 eremua (AR16 h sektorea) xehe antolatzen duen plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurriei eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoak bere indarra galduko du, ALHAOn argitaratu eta lau urteko epean aipatutako aldaketa behin betiko onesten ez bada, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak 31.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laugarrena. Ingurumen txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadin agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 13a

Ingurumen eta hirigintzako diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta hirigintzako zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA